

ZMA

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri aldizkaria • 79. alea • 2023ko urtarrila



ARKAITZ CHAMIZO

Zorrotza Futbol Clubeko entrenatzailea



Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com



Praktikatu Euskaraz Gurekin!



Euskaraz praktikatu eta bizitzeko hamaika aukera ditugu zuretzat:
Mintzataldeak / Familia-ekintzak / Txangoak / Tailerrak /
Mintzodromoak / Lehiaketak / Hitzaldiak / Mendi-irteerak /
Asteburu-pasak...



EMAN IZENA HEMEN:

Zorrotza AEK

Zalbidea, 7 • 94 441 49 20

zorrotza@aeek.eus



Trenbideak lurperatzeko kontsulta proiektuaren aurrerapena jaso dugu. Baietz oraingoan!

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
79. alea, 2023ko urtarrila

f @ZorrotzMorrotz
📧 @zorrotzamorrotz
✉ zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du.
Bilbao EDUKIAREN ERANTZULE BAKARRAK ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Baietz behin beti-koa izan! FEVEren trenbide-pasagunea lurperatuko dutela ematen du! Jakingo duzue, kontsulta-proiektuaren aurrerapenaren berri jaso dugu duela gutxi.

Era berean, aipatu behar da Landa eremua txukuntzeko lanak amaitu direla, eta horrek esan nahi du, Txinbo parkearekin batera, arestian kezka eta arazo iturri izandako auzoko eremu hori gaur egun aisialdirako gune berritua dela. Oraindik xehetasun batzuk falta dira guztiz amaitzeko, eta adibidez, parkeaz gozatzen duen jende kopuru handia kontuan hartuta, oso beharrezkoak jotzen ditugun

komunak lortzeko lanean jarraitzen dugu.

Bestalde, bizikidetzak kezka handia sortzen du, eta Auzo Elkartetik atse-denik gabe ari gara lanean hori konpontzeko. Zentzu horretan, Udalari eta zeri-kusia duten erakundeei, auzoak merezi duen bizikidetzaz izateko hartu behar-reko neurriak har ditzatela behingoz eskatzen diegu.

Auzo Elkartetik, dugun konpromisoa berritu nahi dugu, eta zuen babesa eta parte-hartzea espero dugu, auzotar garen aldetik dago-kigun guztian.

Bukatzeko, urte berri on opa nahi dizuegu.





IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!
ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarriz



ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*



**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO



VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

DisiNua

FEVEren lurperatzeari buruzko informazio-azterlana argitaratu da



IGOR GUTIÉRREZ

Abenduaren 7an, FEVEko trenbide eta geltokia lurperatzeko informazio-azterlana argitaratu zen Espainiako BOEn. Txostena publikoki aurkeztu eta alegazioak jasotzeko 45 eguneko epea ematen du, hau da, otsailaren 23ra arte.


Bi alternatiba aurkeztu dira, biek ere lurpeko ibilbidea proposatzen dute Zazpilanda auzoaren azpitik eta bi trenbide-pasaguneak (bai Zorrotza-Kastrexana errepidekoa bai Zorroztgoitibidekoa) kentzea ahalbidetuko lukete. Finean, bien arteko desberdintasun bakarra merkantzia-garraiorako burdinbidean datza: lehenengo alternatiban, tunel paralelo bat planteatzen da bidaiariak eta merkantziak bereizteko, eta bigarrenean, berriz, tunel beretik ibiliko lirateke bai bidaiariak bai merkantziak, baina geltokian horma batez bereizita egongo lirateke. Planoei erreparatuta, nasa Aldapeta eta Zazpilanda auzuneen azpian kokatuta legoke.

Geltokirako hiru sarbide proposatzen dira. Beherena, Ignacio Miranda auzunetik, Zorrotza-Kastrexanako 49. zenbakiaren parean (Flex-en hasieran). Hiru arrapala mekaniko kokatuko lirateke, errepidetik geltokiko sarbidera dagoen malda gainditzeko. Altuera erdian beste sarbide bat legoke, Alazne López Etxebarria parkearen ondoan, hain zuzen. Hori aukeratuz gero, hogeitabat eskailera finko jaitsi beharko lirateke, eta gero, eskailera me-

kanikoko hiru tarte. Bukatzeko, azken sarbide bat planteatzen da Zorrotzaganako parkearen aurrean, bi igogailutan banatuta. Behin geltokia dagoen altueraraino jaitzita, nasarainoko bidea egin beharko litzateke eta horretarako, bi arrapala mekaniko aurreikusi dituzte. Planteamendu honetan guztian aipatzeko gauza bat da Ignacio Miranda eta Zorrotzaganako sarbideak zuzenean konektatzen dituela, hau da, geltokitik igaro gabe, eta, beraz, ezer ordaindu gabe. Horrek Zorrotzako behealdea eta goialdea lotzeko modu irigarri eta doakoa eskeiniko lioke auzoari.

Auzo Elkartek proposamenaren analisisa eginga dauka eta asanblada Ireki batera deituko du auzotarren iritzia jasotzeko. Bestalde, bere alegazio propioak aurkeztuko dituela iragarri du jada EH Bilduk

Txosten osoa Garraio Ministerioaren webgunean ikusgai dago parte-hartze publikoko bere atalean, eta banakako alegazioak online egiteko aukera ematen du. Erredakzio honen itxieran, Auzo Elkartek proposamenaren analisisa eginga dauka eta auzo asanblada ireki baterako deialdia egitar dago, urtarrilaren 24rako, hura azaldu eta auzotarren iritzia jasotzeko.



Beste alde batetik, EH Bilduk bere alegazio propioak aurkeztuko dituela jada iragarri zuen abenduan, eta besteak beste, auzoaren erdigunean (A-8ko zubibidearen azpitik) geltokirako sarbide bat izatea eskatuko du, auzoaren biztanleriaren %70 inguru biltzen

baita bertan. Era berean, geltokirako balizko sarbide hori bideratuta, garraio bideen arteko intermodalitatea ere bermatuko litzatekeela azpimarratu du EH Bilduk, Bizkaibusen eta Bilbobusren geltokiaz aparte, Renferen geltokia ere handik gertu baitago.

Osasuna sustatzeko belaunaldien arteko tailerrak antolatu dituzte

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saila osasuna sustatzeko proiektu bat bultzatu du Zorrotzan, esperientzia berritzaile baten bidez. Gazteek eta adinekoek jarduera bateratuetan parte hartu dute, bizi-ohitura osasungarrien inguruan harreman aberasgarriak sortzeko.

Parte-hartze komunitarioko prozesuen bidez osasuna sustatzeko programaren barruan

kokatzen da proiektu hau, eta eremu soziokomunitarioan lan egiten duten eragile, elkarre eta erakundeek parte hartu dute proiektu honetan.

Lan hori gauzatzeko, belaunaldi arteko tailer batzuk jarri dira abian, ohitura osasungarriak sustatzeko, Igurco-IMQ adinekoen egoitzako erabiltzaileen eta Fray Juan ikastetxe publikoko Lehen Hezkuntzako 6. kurtsoko ikasleen artean. Tailerrak amaitu ondoren, proiektua bukatzeko, proiektuan parte hartu zuten pertsona guztiek belaunaldien arteko ibilaldi bat egin zuten abenduaren 13an. Bidean, auzoko bizilagunei esku-orriak banatu zizkieten, bizi-ohitura osasungarri buruzko aholkuak ematen zituztenak, tailerretan elkarrekin egindako lanaren fruitu.

Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak eta Udalak Euskal Errota Handiak eta Kordeleria erostea eta balioan jartzea eskatu dute



ZORROTZ MORROTZ

Eusko Legebiltzarrak EH Bilduk aurkeztutako legez besteko proposamen bat eztabaidatuko du, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak Euskal Errota Handien eta Kordeleriaren eraikin guztiak erosteko, edo, hala badagokio, desjabetzeko mekanismo bat adosteko. Proposamenak eskatzen du era berean, eraikinen kontserbazioa bermatzeko, bai eta horiek zaharbertzeko eta balioesteko ere, haien balio historiko-monumental eta arkitektonikoaren eta lege-babes mailaren arabera erabilerarekin.

Jabearekin akordiorik lortu ezean, eraikina desjabetzeko eskatu du alderdi subiranistak, "Euskal Kultura Ondareari buruzko Legean aurreikusten den bezala, baldin eta, hemen gertatzen den bezala, jabeak ez badu ezer egiten eraikina zaintzeko".

Portuak doan laga dio Bilboko Udalari Olabeagako pasealekua

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak behin betiko laga dio Bilboko Udalari Olabeaga auzoko lurzati bat lagatzeari, administrazio-izapideak bete ondoren.

EH Bilduren ekimenak Euskal Erroten eraikinaren inguruan monumentu-multzo bat eratzeko erakundeen arteko jarduera-plan bat ezarriko duen lan-mahai bat sortzeko eskatzen du, izaera historikoa duten gainerako eraikinen (Kordeleria, Zorrotzako Tailerrak, Altzola Zubia...) egoera eta beharrak zehaztuz eta horiek zaharbertzeko eta balioesteko jarduera-plan bat antolatuz, eremuan egon daitezkeen beste jarduera ekonomiko batzuekin bateragarri ginez.

Era berean, EH Bilduk Eusko Jaurlaritzari eskatu dio, inplikaturako gainerako erakundeekin batera, Euskal Errota Handien eraikinaren estalkia berehala zaharbertzeko bidea adostu dezala, eta monumentuaren narriadura gero eta handiagoa geldiarazteko behar diren gainerako premiazko jarduketak egin ditzala.

Desafektaturako eta doan lagatako lurzatiak Olabeaga auzoa Zorrotza auzoarekin lotzen duen ibaiertzeko pasealekuaren zati handi bat hartzen du, 22.000 m² inguruko azalerarekin. Lagapenean zehazten denez, etorkizuneari erabilera publikoari eta gizarte-interesari eutsiko zaie, hala nola, lurreko ibilgailuentzako bidea, pasealekua, parkea eta haurrentzako eta helduentzako jolas-guneak.

TXOKO FEMINISTA



Askotan, sexu orientazioa eta genero identitatea terminoak nahasten dira.

Lehenengoak pertsona bakoitzak beste pertsona batekiko duen erakarpen emozionala, afektiboa eta sexuala sentitzeko duen gaitasuna da, eta genero identitatea gizonak, emakumeak eta araututa ez dauden beste identitateak izatearen sentipenari dagokio. Gehienetan, gizarateak gure sexu biologikoan oinarriturik ezarri digun generoa barnerratzen dugu, hau da, CIS kategoria barnerratzen dugu. Genero identitatea aldakorra izan dai-

teke, eta ohikoena transexuala edo transexuala izatea da.

Normatiboak ez diren sexu orientazio eta genero identitateetatik kanpo dauden pertsonak, LGTBQ+ sigletan biltzen direnak, gizaratean diskriminazioa sufritzen dute. Horregatik, bere praktika sozialak nahita aldatu ditzakete: adibidez, 2020ko ikerketa batek dio Espainiako LGTBI pertsonen herenak ez direla beti nahiko luketen tokietara joaten, beldurratetik, eta bikotekidea dutenen erdiek ez diotela elkarri jendaurrean eskua ematen

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Erabilera pribaturako espazio publikoa?

Ekainean, Bilboko Udalak konpromisoa hartu zuen Zorrotzako Puntako udal-titulartasuneko kaien eremua egokitzeko, eta aisialdiko, kiroleko eta ostalaritzako jarduerak garatzea ahalbidetuko zuela adierazi zuen.

Baina badirudi ez dagoela agindutakoa betetzeko interes handirik. Aldiz, udan ikusi dugu Agaleus taldeko enpresek espazio publiko hori okupatu dutela zakuekin, karpa handi batekin, edota kamioientzako baskula batekin. Auzotarrek erabili eta gozatu beharko luketen espazio publikoa okupatzeko dagokion baimenik ba al du auzotarrei hainbeste eragozpen eragiten dizkien aipatutako enpresa talde horrek?



ehbildu

egiteko
beste
modu bat



ASKABIDE
kultur elkarte
Zorrotza

// Hemen
hondartzara
oinez joan
naiteke eta
hori oso
ondo dago //

MIKEL DURÁN

Bizitokia: Gijón. (Asturias)

Noiztik: 2021etik.

Adina: 21 urte.

Lanbidea: Merkataritza-lana.

Duela 2 urte Zorrotza utzi eta Gijonera joan zen bizitzera Mikel gaztea. Bertako bizimodura egokitzea kostatu zaion arren, etxetik kanpoko bere lehen esperientzia baita, "bere bolan egoteak" lasaitasuna ematen dio, eta bertan, hondartzaren ondoan bizitzea asko gustatzen zaiola aitortu digu.



TESTUA: NAROA PEÑA

Nolatan heldu zinen Gijonera bizitzera?

Bilbon hasi nintzen lanean, eta lana ondo egiten nuenez, Gijonera joatea eskaini zidaten lanpostu hobe batean lan egitera. Aukera berria aprobetxatu behar nuen.

Nolakoa da zure lana?

Merkataritza-lana egiten dut eguzki-panelen eta energia berriztagarrien sektorean.

Bizimodu berrira moldatzea kostatu zitzaizun?

Bai, moldatzea kostatu zitzaidan: gaztea naitzelako, batez ere. Nire lehen esperientzia izan da etxetik kanpo, lanean eta hiri berri batean.

Oso ezberdina da hango bizimodua Zorrotzan zeneukanarekin alderatuta?

Bai, Zorrotzan auzoko eta betiko lagunak ditut. Gijonen, berriz, laneko jendearekin ibiltzen naiz, eta errutinak desberdinak dira. Baina orain hondartzara oinez joaten naiz, hori oso ondo dago!

Auzora askotan bueltzaten zara?

Bai, asteburu, jaiegun edo lanagatik Zorrotzatik gertura autoan joatea tokatzen zaidanetan, itzultzeko aprobetxatzen dut.

Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Euskal Herriko lagunen, familiaren eta bizimoduaren falta sumatzen dut gehien. Gijonen pentsaera itxiagoa dutela esango nuke. Bertan nire kasa lasaiago bizi naiz, baina egia da batzuetan bakarrik sentitu izan naitzela.



“ *Etxetik kanpo lanean eta hiri berri batean nire lehen esperientzia da* ”

Zer da bertan gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Izugarri gustatzen zait nire kasa egotea eta gainera hondartzaren ondoan bizitzea. Baina ez dut bat ere gustuko nire familia eta lagunak urrun izatea...

Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?

Bai gustatuko litzaidake behintzat Bilbora itzultzea. Nire familia eta lagunak gertu izateko.

Lápices
LIBURUDENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES


Tel. 94 441 62 75

MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



La Caixak auzoan dauzkan gizarte- alokairuko etxebizitzak saldu egingo ditu, maizterak erostera ala alde egitera behartuz

Orain dela urte batzuk, La Caixako Gizarte Ekintzak orube bat eraiki zuen Fray Juan eta Geltoki kaleen artean, alokairu sozialeko etxebizitza programa bat martxan jartzeko. Jakin dugunez, iaiztik hainbat maizter gutunak jasotzen hasi dira banketxetik, beraien alokairu-kontratua berriztuko ez dela eta etxebizitzak salduko direla ohartaraziz. Pisia erosteko aukera eskaintzen diete, ordaindu ezin duten prezio batean.

TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ | ARGAZKIA: AITOR MARIN

Miren (gezurrezko izena da, anonimatu gordetzea eskatu digu) Zorrotzara bizitzera etorri zen 2018an, La Caixako Gizarte Ekintzaren alokairu sozialeko programa bati esker. Aurretik Bilboko beste etxebizitza batzuetan bizi izan zen, betiere errentan. Programa horretan izena eman zuen baldintzak Etxebideren antzekoak zirelako, alojeraren prezioaren muga diru-sarreraren %30 zen.

Ez dauka ahazteko programan onartu zuten eguna, 2018ko martxoaren 8a. “Telefonoz deitu zidan InmoCaixako langilea ni baino pozagoe ematen zuen, loteria egokitu zitzaidala, oso aukera ona zela niretzat eta abar”. Bost urterako kontratua eskaini zioten baina lasai egoteko esan zioten, urte askotarako irautea espero zutela. “Hogeita lau ordutan erabakitzen behartu ninduten, bestela zerrendako hurrengoari eskainiko zioten”. Hala, pisua berehala ikustera joan eta baiezkota eman zuen. Kontratua astebetetera sinatu zuen, martxoaren 15ean, hain zuzen. “Pisia hutsik eman zidaten eta korrika batean altzariak

bilatu behar izan nituen, izan ere, errentan bizi izan naizen etxe guztietan altzariak egon dira". Apirilaren 6an Miren eta bere alaba Zorrotzan bizitzen hasi ziren.

Ezusteke gutunak

Iaz, ekainean, auzokide batek Mirenen atea jo zuen. "Galdetu zidan ea ez nuen InmoCaixako gutunik jaso, beste auzokide bati heldu zitzaioela. Ez ziotela kontratua berriztuko eta etxebizitza erostea besterik ez ziotela eskaintzen". Berehala, Mirenek InmoCaixara deitu zuen baina gai horren inguruan informazio-rik ez zutela esan zioten. "Lasai egoteko esan zidaten, horrelakorik suertatzekotan, denboraz abisatuko zutela". Handik gutxira, uztai-lean, nik ere gutuna jaso nuen".

Eskutitza esaldi honekin hasten zen: "Egungo egoera ekonomiko, sozial eta arauemailea dela eta, jabetzak erabaki du maizter zaren promozioa salmentara bideratzea". Ondoren, etxebizitza erosteko aukera zabalitzen zion, erabaki hori adierazteko bi hilabeteko epea emanez. Amaieran, alogera-kontratuaren epemuga mantenduko zela ohartarazten zen.

Kurisoritateagatik, Mirenek bere pisuaren prezioa galdetzeko deitu zuenean ezuztekoa bikoitza izan zen: 218.000 euro. "Nire egoeran ezinezkoa da bankuek hipoteka bat onartzea baina hala ere nire etxea zenbatean saldu nahi zuten jakin nahi nuen. Gehigekeria galanta iruditzen zait". Mirenen etxeak 65 metro koadro ditu: bi logela, egongela txiki bat, sukaldea eta komuna, ez trastelekurik, ez terrazarik. "Hormek ia-ia kartoizkoak dirudite, dena entzuten da".

**“ Bost urterako
alokairua sinatu nuen.
Orain, nire etxea 218.000
eurotan saldu nahi dute**

Kale gorrian eta esperantzarik gabe

Mirenen alogera-kontratua martxoaren 31n iraungiko da. Bizilagun batzuekin kontaktuan jartzeko saiatu da baina ez du esperantza handirik. "Sei solairu gara, hemezortzi etxebizitza gutxira, baina ez dago batasunik. Maizterrek garenez, ez dugu sekula bilerarik egin, ez dugu elkar ezagutzen. Pisu batzuk dagoeneko hutsik daude".

Orain, berriz merkatu libreria ateratzea baino ez daukate. Miren gustura bizi da auzoan baina ezin die alokairuei aurre egin. "Ez dago ezer 700 euro baino gutxiagoan, ezin dut hainbeste ordaindu, nire diru-sarrerak oso eskasak dira. Orain arte 365 euro ordaintzen nuen eta ondo moldatu izan naiz". Etxebiden ere eskaera egina dauka baina "8.000 eska-tzaitetik gora omen dago eta ez dago guztion-tzat haina pisu. Hori bai da loteria bat".

Mirenek orain hitz egin dezake gai honi buruz. "Oso uda latza pasatu nuen, psikologi-koki amilduta egon naiz". Badaki ez dagoela ezer egiterik, beraz, bere helburua La Caixa bezalako banku bat gure auzoan egiten ari dena azalartzea da, besterik ez. "Gizarte Ekintzaren aurpegi horren atzean betiko jokamolde espekulatzailea ezkutatzen ari dira".

**ESKAINITZA
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOAIA +
KRISTALAK** GOI-
GAMAkoak

265€

Sustapena indarrean +4,00 eserako eta
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarretaluxury
OPTICA

cafetxinbo

Especialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

LASTER

**Elektrizitatea
elektronika**

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

ARKAITZ CHAMIZO:
Zorrotza Futbol Clubeko entrenatzailea

// Zorrotza Futbol Club entrenatzeak sentimentalismo handia du niretzat //

34 urterekin, Arkaitz Chamizok bosgarren denboraldia beteko du aurten Zorrotza FC taldearen aulkian.

Taldea hirugarren mailako sailkapenaren behealdean hartu zuen. Gaur egun, Zorrotza FCek maila bat gorago borrokatzen du sailkapenaren erdian.

Denboraldi hasieran beste maila bat igotzeko helburua bazen ere, eta helburu horrek ezinezkoa dirudien arren, urte hauetan lan bikaina egin duela ukatzerik ez dago. Horretaz guztiaz, futbolarekiko duen grinaz, bere etorkizunaz eta klubaren etorkizunaz ere hitz egin dugu elkarrizketa honetan.



Nola hasi zinen futbol zelaietako aukietan?

18 urte nituenean. 15 urte eman ditut jada aukietan... Zazpi Landa taldean nengoen jokalaria, jubeniletan, eta umeak entrenatzen hasi nintzen. Herrialde mailara pasatu behar nuenean, entrenatzaile eta jokalaria lanak uzartzeara zaila ikusi, eta aukian jarraitzea erabaki nuen, gustukoagoa nuelako. Larramendi, Paules, Lutxana, San Bizenteko Union Sport, eta Zazpi Landako hainbat kategoriatako taldeak entrenatu ondoren, Zorrotza FCeko lehen taldea hartu nuen duela bost urte.

Nola gogoratzen duzu hasiera?

Umeak entrenatzen hasi nintzen... Ez dauka zer ikusirik gaurkoarekin. Imajinatu! Baloia jokoan eta umeak gurasoak agurtzen harmailean, kar, kar! Hamazortzi ume nire mende, ni bakarrik egonda aukian... Kaotikoa, oso! Lehenengo urte hartan uzteko zorian egon nintzen. Eskerrak eutsi niola! Geroago, entrenatzaile 2. maila atera nuen langabezian geratu nintzela baliatuta, eta asko ikasi nuen. Eta orduan konturatu nintzen aurretik egindako astakeria batzuez... kar, kar!

Zorrotza taldeko entrenatzailea, eta zorrotzarra. Horrek errazten ala zailtzen du zure lana?

Ez bata ez bestea, baina aitortu behar dut niretzat Zorrotza FC entrenatzeak ilusio handia suposatu duela. Aitite bazkidea zen. Berak bazkideku ninduen eta berarekin etortzen nintzen partidak ikustera. Beraz, sentimentalismo handia dauka niretzat hemen egoteak.

Gaztea izan arren, entrenatzaile ibilbide luzea egina duzu. Zer da futbol aukiak eman dizun gauzarik atsegingarriena?

Asko eman dit... Nik nire lana daukat, nire familia... Baina futbola dut ihesbidea. Hamaikakoak, entrenamenduak eta abar pentsatzen, beste arazoak ahazten ditut une batez. Asko gustatzen zait, eta une hauek oso garrantzitsuak dira niretzat.

Zer da zuretzat garrantzitsuen futbolarri talde batean?

Baloreak eta taldean gustura egotea. Hemen-go jokalarientzat, futbola ez da bere ogibidea, hona etortzen dira gustatzen zaielako, eta



“Hemen hasi nintzenean, bi auzotar baino ez zegoen taldean. Orain hamabost dira. Lortu dugu kanpoan zeuden Zorrotzako jokalaria asko berriro gureganatzea, proiektua erakargarria landuz

helburu berarekin datoz: ondo pasatzea alegia. Lehiakortasuna ere lortu nahi dugu, jakina, eta ahalik eta ondoen egin. Baina garrantzitsuen gustura egotea da.

Eta zer baloratzen duzu gehien jokalaria batengan?

Konpromisoa eta gogoia. Badakit hemen gauden guztiok entrenamenduak eta txapelketa baino gauza garrantzitsuagoak ditugula gure bizitzetan, baina, hala ere, taldean egoteko konpromisoa hartu dugu eta hori islatu egin behar da nolabait. Asko baloratzen dut konpromisoa. Baliteke jokalariren bat bere onenean ez egotea, baina prestutasuna badauka, eta ehuneko ehuna uzten badu, hori saritzen saiatzen naiz. Aldiz, esfortzurik edo gogorik eza, asko zigortzen dut.



2020an Lurraldeko 2. Mailara igo zineten. Elkarrizketa hau egitean, sailkapenaren erdialdean kokatuta zaudete, jaitsierako postuetatik 13 puntura eta igoerako play offetik 10 puntura. Zein da aurtengo helburua? Denboraldi hasieran ezarritako helburu bera da?

Hasierako asmoa goian egotea zen, baina oso txarto hasi dugu denboraldia. Oso talde ona dugu eta nahiz eta oso ondo entrenatu eta partidetan ondo aritu, mentalki kaxkar ibili gara. Gol bat jasota, egoerari buelta eman ezinik ibili gara askotan... Hala ere, denbora dago oraindik egoerari buelta emateko, eta goian bukatzeko ahaleginak eta bi egingo ditugu. Partida batzuk jarraian irabazita, eta geure buruari posiblea dela sinestarazteko gai bagara, nik uste dut hobera egingo dugula.

Hala ere, oso zaila dirudi aurten igoera lortzeak. Hurrengo denboraldirako helburua izan behar du?

Blokea mantentzen bada, bai. Oso talde ona egin dugu aurten. Zortzi jokalar berri etorri dira, eta hasieran taldeari zelai barruan trinkotzea kostatu bazaio ere, egonkortzen hasi gara. Datorren urtean taldeko hezurdurak jarraitzen badu, igoera posiblea dela uste dut.

Zure gidaritzapean?

Hemen beste inon baino denbora gehiago eman dut dagoeneko. Ez zait gustatzen talde berean hiru urte baino gehiago ematea, azkenean nolabait giroa akitu egiten delako.

Denboraldiaren bukaeran erabaki beharko dut zer egin, baina agian une egokia izan daiteke nik alde batera egiteko eta haize berria sartzen uzteko. Entrenatzaile berri baten etorrerak taldeak helburu handiagoak lor ditzan lagundu lezakeela uste dut. Bestetik, bigarren semea izan berri dut eta une honetan familia eta entrenamenduak kontzilia-tzea geroz eta zailagoa egiten zait.

Agurra iragarri diguzu beraz... Onartuko zenuke urte batzuk barru aulkira itzultzea?

Jakina. Irrikitan egongo naizela esango nuke... Esan bezala, une honetan nire familiak, nire seme-alabek eta nik neuk ere geldialdi bat behar dugula uste dut, baina Zorrotzaren edo beste talde baten deia jasotzen badut etorkizunean, bueltatzeko prest egongo naiz ziur aski. Ez dakit lehen taldea berriro hartzeko, edo umeak agian... Hori momentuan eta baldintzen arabera ikusi beharko da, baina oso gustukoa dut entrena-tzea eta ez dut betiko utzi nahi, ezta gutxiago ere. Eta dena den, Zorrotza FCn jarraitzeko asmoa daukat nolabait. Laguntza lanetan, edo beste mota batzuetako lanetan.

Denboraldi hau amaitzeke egon arren, Zorrotza FC entrenatzen egin duzun ibilbidearen balantzeren bat egitera ausartuko al zara?

Taldea hartu nuenean, 3. mailako beheko postuetan zegoen, eta 2. mailan egonkortuta dago. Lortu dugu auzoko jokalaria berriro gureganatzea. Taldeak bazkide kopurua

// Pandemiagatik lortutako igoera zelaian ezin ospatu izaneko pena geldituko zait //

Futboleantzen ez bazina, zein beste kiroletan egotea gustatuko litzaizuke?

Ba adibidez, taekwondo eta arte martzialak egin nituen hamazortzi urte bete arte. Urteak entrenatzen ere aritu nintzen, baina futbola da gustukoaren dudan kirola.

Beraz, entrenatzailea izateaz gain, futbolzalea ere bazara.

Bai, oso. Athleticen bazkidea naiz, eta ahal dudana guztietan, **San Mameseko** partidetara joaten naiz.

Gustuko duzun, edo ikasteko moduko entrenatzaile bat aipatu behar bazenu?

José Mourinho gustatu zait betidanik, baina ez dut erreferentziarik izan ikasteko.

Inoiz ahaztuko ez duzun partida?

Pena handia ematen dit Zorrotzan lortu genuen igoera ospatu ezin izanak. Pandemiagatik denboraldia gelditu zenean, lehenengoak ginen, eta hamar puntuko aldea ateratzen genion bigarren sailkatuari... Igoerako balizko partida hura aipatuko dut, nahiz eta pandemiak bizipen hori lapurtu.

Ezinezkoak amestuz, lehen mailako zein jokalaririk ekarriko zenuke Zorrotzara?

Oihán Sancet. Ikaragarri gustatzen zaidan jokalaria da. Oraindik oso gaztea da, baina Athleticen garai bat markatu beharko lukeen jokalaria dela uste dut.



handitu du, eta lortu dugu jendea berriro harmailetara etortzea. Nire hasierako asmoa herrialdeko lehenengo mailara igotzea bazen ere, eta helburua lortu ez, balantzea egin behar bada, ona izan behar duela esango nuke. Auzoko jokalaririk asko berriro gureganatzea lortu dugu; sartu nintzenean, bi zorrotzar baino ez zeuden taldean, eta orain hamabost daude... Bestalde, zuzendaritzak lan handia egin du beheko mailak aurrera ateratzeko, eta horrek fruituak emango ditu datozen urteetan. Hemendik urte batzuetara, Zorrotza FC goragoko mailetan ikusiko dugula uste dut.

Bizkaiko bigarren mailan egon arren, taldeak zalego fidela du. Nola sumatzen duzue zaletuen laguntza? Zorrotzako harmailetan giro ona al dago?

Oso. Taldeko jokalaririk batzuek ohorezko mailan jokatu dute, eta badiote zalego eta giro handiagoa dagoela hemen maila horretan zeuden taldeetan baino... Hemen partidak guztietara datozen bazkideak daude, eta asko laguntzen duen eta ekintza ugari antolatzen dituen zaletu talde bat. Autobus bat bete zuten zaletuak Villasana de Menan izan genuen partida batera joateko! Hori ez da batere ohikoa kategoria hauetan!



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

*Regalos
Omega*

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66



AGENDA

Otsailak 4, larunbata

21:00 Gaztetxean.

Kontzertua: LA TOPADORA.

Sarrera: 10/12 euro

Otsailak 11, larunbata

20:00 Gaztetxean.

Kontzertua:

CONFLICT NOISE + HEX.

Sarrera: 8 euro

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (martxo-apirila) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi otsailaren 24a baino lehen.

Zer Non Ikusi

Katalogo Zinema Hori buruz Kontakia

Nobedadeak



www Zer Non Ikusi

www.zernonikusi.eus

Zer Non Ikusi, euskarazko ikusentzuzko edukiak kontsultatzeko plataforma berria Sarean ikusgai dauden euskaraz sortutako edo euskarara itzultako edukiak bilatzeko webgunea aurkeztu berri dute. Euskarazko edukiak sarean aurkitzea erraztea du helburu plataformak egileen arabera, eta horrela, Zer Non Ikusi webguneari esker plataforma ezberdinetan aurki daitezkeen filmak kontsultatu daitezke: "Ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzea ez da telebista piztea. Edukiak kontsumitzeko modua aldatu egin da eta ohiturak aldatzea egokitu zaigu. Helduok ere ez dugu aukera askorik edukiak euskaraz kontsumitzeko".

Sustatzaileek oraindik lan asko aurretik duten arren, gaur gaurkoz 450 eduki baino gehiago katalogatu dituzte.



Suak erreko ez balu

Eneko Barberena Mondragon

Txalaparta. 2022. 392 orrialde.



Aezkoako mendi sute batean hiru mendizale hil eta geroko ikerketan, poliziak bi artzain atxilotu eta espetxeratu ditu. Urtebete geroago, Konpainia izeneko aseguru etxeak Ainhoa Sanz peritua bidaliko du Aezkoara sutea ikertzera, aseguru etxeko bezero diren artzainen inplikazioa argitzeko Konpainiak diru asko baitu jokoan. Horrela, Nabala herritik abiatuta, Ainhoak ezagutzen ez duen ingurune bat arakatu beharko du egia argitu nahian. Bilaketa horretan, meatzaritza enpresen interesak, artzainen arteko ezinikusiak, Guardia Zibilaren presentzia itogarria, gaueko langileak eta beste hainbat elementu aurkituko ditu. Beltza da gaua Euskal Herriko oihanean. Su txingarrek emango ote diote Ainhoari bidea aurkitzeko nahikoa argi?



SUTAN "II"

(Mauka musikagintza) 2022



Bilboko talde gazte honen bigarren erreferentzia dugu honako hau. Euskal Herriari sona handia duen Mauka musikagintzaren eskutik pasa den Durangoko Azokan aurkeztu zuten joera berriak dakartzan emaitza.

Iragan udan Gaua eta Phase estudioetan grabatuta, teknikari Garilak 26 erromeria taldeko baterijole Ieltxu Gimenez aritu zen. Lan honen 9 abestietan zehar taldearen eboluzioa nabarmena da, non ska-rock doinuez gain ikutu elektronikoa eta dub joerak ere presente dauden. Euskal musika ez ezik, Mediterranioko musikaren influentzia ere somatzen da. Kataluniar eta valentziar herrialdeetako taldeen oinordeko zuzenak direla esan dezakegu, betiere euren estiloa mantenduta.

Taldearen garapena aipagarria eta positiboa bada ere, alde negatibo bezala azkenengo nahasketa eta masterizazioan lortutako soinua aipatu beharra dago, ene ustez ez baitie justiziarik egiten. Gaur egun streaming-a da musika entzuteko modurik nagusiena eta hori kontuan hartuta, garrantzitsua da ahalik eta soinua kalitate hoberean lortzea. Kritika hau albo batera utzita, euren zuzenekoetan gozatzea besterik ez zaigu gelditzen!



PINTXOTAN

"Kopon" sandwicha



Zailtasun maila: Ertaina.

Prezioa: 2,30 euro.

Osagaiak: Molde ogia, York urdaizapikoa, hegaluzea, arrautza egosia, letxuga, mahonesia eta saltsa berezia (sekretua).

Hasteko, molde ogi xerra bat mahonesarekin igurtzi, eta gainean york urdaizapikoa eta letxuga fresko kurruskaria ipini. Honen gainean bi aldeetatik mehonesarekin igurtzitako bigarren xerra jarri, eta behetik gora, saltsa bereziarekin nahastutako hegaluze birrindua eta arrautz egozizko xerrak ipini. Kontuan izan saltsa bereziak puntutxu pikantea baina leuna daukala. Bukatzeko, aurrekoan bezala, bi aldeetatik mahonesarekin igurtzitako molde ogia ipini eta gainean York urdaiazpiko xerra.

BATZOKIA

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera 6:30-22:30

Larunbatetan 7:30-23:00

Igande arratsaldean eta
astelenean itxita

Afariak enkargupean

Clara Campoamor kalea, 4

Telefonoa: 94 405 92 63



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



Ganeroitz, Apuko

Aurreko ibilbideari jarraipena egiteko, eta dekogun kulturari jarraituz, “poliki poliki baie aurrera beti”, kapitulo hontan beste apur bet aurrera egingo dogu

MANU COBO

Aurrekoan Sasiburu mendilerroa igotzeko bide bardinek harturik eta goitik joanda zein pistari jarraituz, Haitzurire helduko gara eta handik gora egiten,

Ganeroitz (561m)

Sasiburu mendikatearen gailurra, Triano edo Grumeran mendien multzoan dagona. Salgetako (414 m) mendi-lepoen artean dau, iparraldera, eta Castaños edo Txertoaren Kortaren (396 m) artean. W. gailurau-rrekoa N-ri Haitz zuriak edo Peñas Blancas (463 m) deitzen jago, azalerratzen diren kareharrien kolore zuri deigarriatik. Castañoseko atakatik hegoalderago, mendilerroak Eretza (871 m) ikusgarriantz jotzen dau, Enkarterriko mendien sektore honen garaiera gorenana.

Jeisteko aukerak:

Zamunditik.

Auzoko mendi taldearen ohiturari jarraituz, otsailaren bigarren domekan Sasiburutik igo, Ganeroitz egin eta Haitzurietako eskumaldean, Ganeroitztik jeistean, egorantza, meatzen bide zaharra ikusiko dogu, beheko aldean etxe talde bat eta harantza doala. Hori hartute Zamundiko basilizara helduko gara eta gaue egun errepidea harturik Alonsotegin agertuko gara. Kastrexanako delizietako bidetik eta zorginzubie pasata, auzora.

Kastañosetik.

Ganeroitzen ekialdeko maldatik ekarri dogun pistara jeitsiko gara eta Aurrera egiten gurutze batera helduko gara azkar. Ezkerretik Saratxora joango geinke, baie geuk eskumeko bidea hartuko dogu. Ezker aldean Mendibil ikusita eta eskumaldean Sasiburu, bidea galdu barik Kastañosera jeitsiko gara, euri garaietan basa nahikogaz izango dogu arazoa.... Kontuz ez egiteko laprast. Berantza jarraituz Errekaxora helduko gara, urtegiaren eskumaldeko bidea jarraituz Gorostizara helduko gara, eskumaldera jotzen Gurutzetara igo eta handik auzora.

Bazkalordue, ordu ona etxera joateko.



Santa Kiteria basiliza. Alonsotegi



Zamunditik



Mehätzen aztarna zaharrak



Zamundira mehatz bidea

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59

Eguraldia



ASIER URKIZA

Ez genuen asko uste, baina konturatzerako negu gorria sartu zaigu. Hasi da euria goitik behera, haize zafradak aurpegiaren kontra, euritakoak ezin gobernatua. Hasi dira egoten ibai eta errekek gainezka egiteko puntuan, kalean putzuak, plisti-plasta. Eta hotza, hotz mina, aspaldiko partez karibear itxurako Euskal Herri epel honetan. Horrekin guztiarekin batera, jakina, urtero bezala sortu dira eguraldiari buruzko hizketaldi amaigabeak, goizeroko iruzkinak, egunez eguneko iragarpenak. Eguraldia, izan ere, gai nazionala da herri honetan. Hortxe dabil gure telebista publikoa, hamaika tokitara berriemaileak bidaltzen informazio meteorologikoa bertatik bertara egiazta dezaten, uanean uanean egoeraren berri ematen, edozein aldaketa, bilakaera edo gertaerari adi.

Eguraldiarekiko dugun obsesio hori bera aztertzea da. Ez legoke gaizki jakitea zer dela eta Euskal Herrian ematen duen eguraldiak orrenbesteko zeresana. Aitor dut askoz kultura gehiago ez dudala ezagutzen, sakonki esan nahi dut -esan dezadan lehenengo eskutik, egokiago-, baina esango nuke hainbesteko kalakarik ez dagoela beste bazter batzuetan. Espainian bertan, esaterako. Katalunian ere neurritsuagoak direla ematen du. Ez dakit euskaldunon naturarekiko jaidura -sarritan azalekoa eta itxurakerian oinarritua- ote den, gure mendizaletasuna -idem-, fenomenoa ukultereko grin zientifikoa -saiatu barre egin gabe irakurtzen-... Edota, besterik gabe, beste ezertaz hitz egiten ez dakigula; tira, onartu behar igogailuko elkarriketak osatzeko behintzat balio duela. Hedabideek, ordea, asmo ezkutuagoak izan ditaketelakoan nago. Akaso

audientziarengatik baino ez da, jakina baita maite-maite duela euskaldun arruntak eguraldia; baina ezin da ukatu mamiaz baino gehiago azalaz hitz egitea ahalbidetzen duela euri zaparradak eta tenperatura-ren jaitsierak uneoro aipatu nahi izatea.

Eguraldiaz mintzo dira sarritan bitartekoa helburu bihurturik. Alegia, elurra aipatuta albistegiek inoiz gutxitan zuzentzen dutela begirada kale gorrian bizi direnengana; hotz sarkorraz kexu bai, baina arreta gehiegirik ez diote ematen gasaren igoera neurrigabeari. Beste kasu batzuetan, horrelakoak ere entzun behar izan baititugu, poza-edo adierazi izan dute aurkezleek negu batean udaberriko tenperaturak izateagatik. Larrialdi klimatikoa zientzia fikziozko kontua da, antza. Hortaz, azalekoa da eguraldia, bai, azal lodi asko ezkutatzen duenez. Eta ni igogailuko elkarriketa hutsalak zirelakoan...

Txinbo mendizaleak

Zorrotzako Txinbotarrak konpartsan aisialdi osasungarria sustatzeko proiektu txiki bat martxan jarri dugu. Horretarako, hilabetero mendi irteerak antolatuko dira Zorrotzatik, auzokide guztientzako irekia eta pertsona guztientzako ibilbide mota eta aukerekin.



TXINBOTARRAK
KONPARTSA

Belaunaldi desberdinen arteko irteerak izatea nahi dugu, beraz, ibilbidearen arabera, ibilbide alternatiboak proposatuko dira txikiagontzat. Garrantzitsua da kontuan hartzea ez garela mendiko profesio-

nalak, baina gogoa eta ilusioa dugu!

Eguneratutako informazio guztia eta hileko irteerak sare sozialetan argitaratuko dira. Edozein zalantza edo kontsulta izanez gero, harremanetan jar zaitezke bai sareen bidez, bai txinbotarrak@gmail.com helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz. Mendiko botak jantzita izango gaituzue zain!

Zorrotzako trenbidearen hiri-integraziorako informazio-azterlanaren inguruko irakurketa

Zorrotzako trenbide-pasaguneak lurperatzea eta auzoan geltokia mantentzea eskaera historikoa da. Azken 35 urteetan 21 pertsona hil dira auzoko trenbide-pasaguneetan. Datu horrek alarma guztiak piztu behar zituen lurperatzea gaur egun errealitatea izan zedin. Urte asko itxaroten egon ondoren, ADIFek Zorrotzako trenbidearen hiri-integrazioari buruzko informazio-azterlana aurkeztu du. Ikerketa hori, berandu iritsi arren, albiste ona da, Zorrotza auzoko eskari horri behingoz erantzun behar baitzaio.

Informazio-azterlan honek Zorrotzako eta Zorroztogotiko trenbide-pasaguneak kentzea jasotzen du, baita trenbide-integrazioa ere. Baina lurperatzeak auzoaren beharrei benetan erantzun nahi badie, hasieratik ondo diseinatu behar da, sakoneko obra delako.

Informazio-azterlanak hiru sarbide planteatzen ditu: Alazne Lopez Etxebarria lorategian, Ignacio Miranda auzunean eta Zorrotzagana kalean. Hiru sarbideak auzoaren goiko aldean daude, A8 autobiak sortzen duen hesi fisikoaren gainetik.

Zorrotzako edozein bizilagunek badaki Alazne Lopez



RAÚL MÉNDEZ
EH Bilduko batzarkidea
(@rmurigoitia)

“ **Funtsezkoa izango litzateke sarbideetako bat erdigunetik hurbilen dagoen leku batean kokatzea, Zorrotza-Kastrexana errepidearen eremuan.**

Etxebarria lorategiko sarbidea ez dela egokia auzoaren erdialdeari zerbitzua emateko. Erdigunetik puntu horretara iristeko, A-8 autobidea igaro behar da pasabide batetik (Barraski-Lo Zubia), edo han dagoen igogailutik, eta gero Bide-gaineko funikularra erabili. Sarbide hau ez da irigarria ezta erabilgarria izango auzoko pertsona askorentzat. Eta Ignacio Miranda auzuneko sarbidea egungo geltokiaren kokapena baino urrutiago kokatzen da. Auzoaren gehiengoak garraio kalitatea galduko du gaur egungoarekin alderatuta.

Funtsezkoa izango litzateke sarbideetako bat erdigunetik hurbil dagoen leku batean kokatzea, Zorro-

tza-Kastrexana errepidearen eremuan, hain zuzen ere, erdiguneko biztanleei zerbitzua emanez, eta baita etorkizunean Zorrotza Puntako biztanleei ere. Gainera, horrela, garraio-bideen arteko intermodalitatea bermatuko litzateke, Bizkaibusen eta Bilbobusen geltokiak eta Renferen geltokia baitaude handik gertu.

Bestalde, informazio-azterlanak ez du aurreikus-tzen metroaren 4. linea txostenean proiektatutako trazadura eta geltokia erabiliko litzuzkeela, eta, beraz, egungo 57 tren-zirkulazioetatik metroko zerbitzuko 200 zirkulazio baino gehi-gora igaroko ginateteke.

Aldarrikatu behar dugu informazio-azterlanak jaso dezala Bilboko metroaren 4. linea trazadura horren bidez iristeko aukera, eta Euskal Trenbide Sareak egindako 4. linearen informazio-azterlanean jasotako datuak kontuan har daitetzela geltokiaren dimentsionamenduan eta tarte horren trenbide-jardunean.

Zorrotza auzoarekin hartutako zorra kitatzeko garaia da, bai baina planteamenduarekin asmatuta, arazoak konponduta eta auzotarren beharrak beteta.

Lurperatzea bai, baina ondo eginda.



Flor

2029an izango dela uste dut. Urteak eta urteak eman ditugu laster izango dela entzuten.



Rakel

Nigatik balitz, bihar bertan hasiko lirateke... Hala ere, data bat iragarri duten bakoitzean, ez da inoiz bete.

IRATZE PÉREZ

Trenbideak lurperatzeko kontsulta proiektua.

Baietz oraingoan!
Noiz gauzatuko da?



Meritxell

2025 edo 2026rako izango dela uste dut. Obrak diren bitartean, goiko partean bizi gareno bidea ahalik eta gutxien oztopatzea kontuan izan dezaten espero dut...



Marta

Egindo dela uste dut, baina epe oso luzera. Urte gehiegi daramatzagu kontu berarekin.



Patxi

Egunkarietan 2025ean izango dela irakurri dut. Diotena baino pixka bat beranduago izango dela esango nuke nik.



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



Plater konbinatuak,
hamburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98



Zure zain gaituzu
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora



DARABILBO

Tailerrak/bisita gidatuak/joskintza/
kirol-ekintzak/sukaldaritza/
ikuskizunak/lehiaketak...

BILBON AISIALDIA EUSKARAZ



B
Bilbao

www.darabilbo.eus
darabilbo@bilbao.eus
607 530 132

iKasi
MiKasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**

 Udalaren Heziketa, Hizkuntza eta Kulturaren Zuzendaritza
Pinadia etbaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
● stetecampas@gmail.com

 Heziketa, Hizkuntza eta Kulturaren Zuzendaritza
Ikastalde etbaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
● 014159aa@hezkuntza.net

 ZORROTZA
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
☎ 94 428 01 37
● 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

aek

euskara praktikoa

LA MEJOR COMPAÑÍA PARA APRENDER

EUSKARA

IKASTEKO BIDE LAGUN ONENA



Zorrotza AEK euskaltegia

MATRIKULA ZABALIK • EMAN IZENA

Zalbidea 7, behea | **94 441 49 20** | zorrotza@aek.eus

ORDUTEGIA | HORARIOS

2,5 ordu astelehenetik ostiralera | 2,5 horas de lunes a jueves

Goizez: 09:30 - 12:00. Arratsaldez: 17:00 - 19:30

EGUTEGIA eta PREZIOA | CALENDARIO y PRECIOS

Urtarrilaren 5etik ekainaren 29ra | Del 5 de enero al 29 de junio

228 ikastorduak | 228 horas lectivas

Matrikularen prezioa: 502 € | Precio de la matrícula: 502 €

GAINDITZEN BADUZU, DOHAINIK!! | ¡¡SI APRUEBAS, GRATIS!!



Aurrez aurreko eskolak
Clases presenciales



Autoikaskuntza
Autoaprendizaje



Normalizazio-plana
Planes de normalización



Mintzoprotikta



Online



Itzulpenak-Zuzenketa
Traducciones-Correcciones



Barnetegiak



Itzul aldizkaria

• HAZTEK berriagoetarako euskaltegiak
Euskaltegi berriagoak 2024ko HAZTEK
• Aholkulari adituak praktikarako ikasteko
Curso de preparación de exámenes oficiales
HAZTEK de euskaltegiak HAZTEK

www.aek.eus
943 200 300 - 944 464 000

